ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko ekainaren 15a, ostirala • 69 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

293/2018 Erabakia, ekainaren 5ekoa. Onespena ematea 2017/2018 kanpainan Eskola Kirolaren Programan jasotzen diren jardueretan parte hartzeko dirulaguntzen deialdiari

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak asmotan dauka 2017/2018 kapainan eskola kirolaren programan jasotako kirol jarduerak egiteko dirulaguntza ematea.

Horretarako, aginduzkoa da berariazko arau esparru bat ezartzea, programan jasota egonik sailaren dirulaguntzak emango zaizkien kirol jarduerak arau esparru horri egokitu dakizkion.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, erabaki hau onetsi da

ERABAKIA

Lehenengoa. 2017/2018 kanpainan zehar eskola kirolaren programan jasotako jardueretan parte hartzeagatik emango diren dirulaguntzetarako deialdia onartzea, 2018ko ekitaldian indarrean egon dadin, eta, horretarako, 601.300 euro ezartzea gehieneko zenbateko gisa. Deialdia Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak ezarritakoaren pean egongo da (2015ko urriaren 21eko ALHAO, 123. zk.), zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia bidez esleitzen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokorrak eta erabaki honen eranskinean doazen berariazko oinarriak. Deialdia emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioaren pean egin da, zeina Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legean jasota baitago.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 70.1.06.77.00.481.00.01 “Eskola kirola” partidaren kontura ordainduko da (lerroa: 70-112; xedapena: 105.2714).

Hirugarrena. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko den ebazpena; horretarako, lau hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota ebazpen espresik ez bada egon, eskaera ezetsi egin dela ulertuko dute erakunde interesdunek.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri ALHAOn emango da eta jakinarazpen balioa izango du, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 5a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua
IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. eranskina

Arabako Lurralde Historikoan irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez 2017/2018 kanpainan eskola kirola garatzeko dirulaguntzetarako deialdia

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da 2017/2018 kanpainan eskola kirolaren programan eta hori garatzen duten araudietan (ekainaren 1eko 178/2017 Foru Aginduaren bidez onarturik) jasotako jardueretan parte hartzeagatik sortutako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontuan ezarritako mugen barruan.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntza guztien zenbatekoa ezin izango da inola ere 601.300,00 euro baino gehiago izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "Eskola kirola" izeneko 70.1.06.7700.481.00.01 partidari egotziko zaio (lerroa: 70-112).

Hirugarrena. Elkarte edo erakunde onuradunak eta kanpo utzitakoak

Hona nortzuk izan daitezkeen dirulaguntzen onuradun: ikastetxeak edo haiei atxikitako irabazteko xederik gabeko erakundeak (Ikasle gurasoen elkarteak, kirol taldeak,...); Arabako federazioak; bai eta kirol klub eta elkarteak ere, eskola kirolaren 2017-2018 kanpainan izena eman badute eta egoitza edo ordezkaritza Araban edo Trebiñuko Konderrian badute.

Ezingo dira onuradun izan Diputatuen Kontseiluaren urriaren 7ko 55/2015 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian ezarritako baztertze egoeretan dauden erakundeak (dekretu hori, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituena, ALHAOren 2015eko 123. zenbakian argitaratu zen, urriaren 21ean).

Deialditik baztertuta geratzen dira, halaber:

— Lehiaketa ofizialetan jarduteko bakarrik izena emanda dauden eta haietan bakarrik parte hartzen duten erakundeetako taldeak eta multzoak, haien jarduerak, gizarte etxeen eta kirol instalazioen 2017-2018ko udal programan eskainiak izanik, oso-osorik Gasteizko Udalak finantzatzen baditu.

— Izena emandako talde edo multzo parte hartzaileak, multzoaren baldintzak betetzen ez badituzte (begirale-entrenatzaile bat edukitzeko betebeharra) eta astean egin beharreko lan-saio kopuruari buruzko baldintza betetzen ez badute (bi lan saio astean, gutxienez); baldintza horiek, hain zuzen, ikastetxeen eta irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez 2017-2018 kanpainan gauzatuko den eskola kirola arautzen duten arauak onartzen dituen Foru Aginduaren II. eta III. eranskinean daude jasota (178/2017 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa).

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Gehienez ere 601.300,00 euro emango dira dirulaguntzatan, 2017/2018ko eskola kirolaren programako jarduera eta lehiaketa hauetan parte hartzegatik:

1. Parte hartzearen ibilbideko hastapen jarduerak, kirol eta kultur jarduerak eta lehiaketak (hastapen unitate/ikastaroak izan ezik).

2. Errendimendun hasteko lehiaketak (teknifikazio jarduerak izan ezik).

Bosgarrena. Eskaeren aurkezpena

1. Eskaerak:

Laugarren klausulan jasotzen diren programetarako.

Ez da eskaerarik aurkeztu beharko, eskola kirolaren 2017/2018 ekitaldian izena emandako erakunde eta parte hartzaileen izen emateak jotzen baitira halakotzat (parte hartzaileak, hau da, taldeak eta multzoak) eta izen emateetan eman eta Kirol Zerbitzuak baliozkotzat jotako datuen

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

araberakoak izango baitira. Dirulaguntza hau eratzeko, hain zuzen, eskola kiroleko izen emateen informatika aplikaziotik 2018ko martxoaren 30eko dataz ateratako datuak baliatu dira.

Hezkuntza arloko beharrizan bereziak dituzten eskola umeentzat kirol prestakuntzako langile bat beharrezkoa den edo ez erabakitzeko, erakundearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, beharrizan hori islatzen duena, hauexek azalduta:

— Erakundearen identifikazio zenbakia, IFZ eta izena.

— Laguntza ematen duen monitorearen identifikazio zenbakia eta izen-abizenak.

— Hezkuntza arloko beharrizan bereziak dituen kirolariaren identifikazio zenbakia eta haren ezintasunaren ziurtagiri ofiziala.

— Sartuta dauden taldearen identifikazio zenbakia, izena eta kirol modalitatea.

Berdintasun planen egiaztapenerako eta horiek idazteko eta abian jartzeko, ez da beharrezkoa izango eskabidea aurkeztea, eskola kirolaren 2017/2018 ekitaldian izena emandako erakundeen izen emateak jotzen baitira halakotzat, eta programan izena emateko emandako datuen araberakoak izango baitira, Kirol Zerbitzuak baliozkotzat jo eta programaren arduradunak txosten bidez berretsitako datuen araberakoak, alegia.

Erakundearen egituraren funtzionamendua hobetzeko asmoz erakundeetako kideek Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioak ematen dituen kudaketa aurreratuko ikastaroan parte hartzeagatik eta ikastaroan ikasitakoak egikaritzeagatik ematekoa den "kudeaketa aurreratuko diploma" delakoa ziurtatzeko, ez da beharrezkoa izango eskabidea aurkeztea, "Euskalitek" berak egindako txostenaren bidez berretsiko baita parte hartze hori.

2017-2018 kanpainarako izena emanda dauden "B kirol jarduera anitza" taldeentzako kirol jarduera anitzak (topaketak) antolatzeko modulua kuantifikatzeko, erakunde bakoitzak antolatutako jardunaldi bakoitza deskribatzen duen memoria bat aurkeztu beharko da.

2. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzearen ziurtagiriak:

Eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeen egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrei dagokienez, beren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukaten erakunde onuradunentzat nahikoa izango da egoera horretan daudela baieztatzea. Foru Aldundiaren ardura izango da ziurtagiria ematea, Foru Ogasunaren bitartez.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Hogei egun, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Hauek aurkeztu beharko dira:

— Hezkuntza arloko beharrizan bereziak dituzten eskola umeentzat kirol prestakuntzako langile bat beharrezkoa den edo ez erabakitzeko, erakundearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, beharrizan hori islatzen duena.

— 2017-2018 kanpainarako izena emanda dauden "B kirol jarduera anitza" taldeentzako kirol jarduera anitzak (topaketak) antolatzeko modulua kuantifikatzeko, erakunde bakoitzak antolatutako jardunaldi bakoitza deskribatzen duen memoria bat aurkeztu beharko da.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

a) Laugarren oinarriaren 1. eta 2. puntuetan jasotzen diren programetarako dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, betiere modulu hauen arabera:

a.1. Talde bakoitzeko balioespena:

a.1.1 Modulu hauek aplikatuko dira, eskola kirolaren programan parte hartzearen arabera:

Kimuen, haurren eta kadeteen adineko kirol modalitatean parte hartzen duen kirolari bakoitzeko	33,00 euro
Kirol jarduera anitzetan parte hartzen duen kirolari bakoitzeko	80,00 euro

a.1.2. Prestakuntzako langileen kirol titulazioaren zuzenketa indizea:

Aurreko ataleko emaitza (parte hartzen duten kirolarien kopurua bider parte hartzen duen kirolariaren prezioa), multzo edo talde bakoitzarekin biderkatu behar da, oinarri hauen II. eranskinean jasotako titulazio koadroarekin bat etorriz, eta zuzenketa indize hau aplikatu:

LANGILEAREN TITULAZIO MAILA	ZUZENKETA INDIZEA
1	1,00
2	1,05
3	1,10
4	1,18
5	1,21
6	1,25

Pertsona bat baino gehiago ari bada prestakuntza ematen duen langileen eginkizunetan, titulazio maila handiena duena hartuko da erreferentziatzat.

a.1.3. Prestakuntza langileen artean emakumeak izateagatik aplikatzekoa den zuzenketa indizea.

Aurreko ataletako emaitza (Baliozkotutako kirolari kopurua bider parte hartzen duen kirolariaren prezioa bider prestakuntza langilearen titulazioa), multzo edo talde bakoitzarekin biderkatu, eta, horri, honako zuzenketa indize hau aplikatu:

Prestakuntzako langileen artean emakumeak izateagatik	1,15
Prestakuntzako langileen artean gizonak izateagatik	1,00

Pertsona bat baino gehiago ari bada prestakuntza ematen duen langileen eginkizunetan, titulazio maila handiena duena hartuko da indize hori aplikatzeko erreferentziatzat.

a.1.4. Ondoren, hala dagokionean, honako modulu hau aplikatuko da:

Ezintasunen bat duten kirolariei laguntzeko prestakuntza langileengatik	951,04 euro

a.1.5. Balioespena, guztira, multzo edo talde bakoitzeko.

Hauen batura izango da:

— Honako hauek biderkatuz ateratzen den emaitza: kirolari kopurua bider kirolari bakoitzeko moduluaren balioa (a.1.1 atalean zehaztua) bider a.1.2 atalean jasotzen den zuzenketa indizea, bider a.1.3 atalean jasotako zuzenketa indizea.

— Hala dagokionean, a.1.4. atalean jasotzen den zenbatekoa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

a.2. Erakunde bakoitzeko balioespena:

Erakunde bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, erakunde horren multzo guztien kalkulua batuta ateratzen den emaitza hartuko da kontuan.

Erakundearen balioespenari zenbateko hauek gehitu ahal izango zaizkie:

a.3 Hizkuntza normalizatzeko planetan prestatzea, haien proiektua idaztea eta plana bera inplementatzea.

Hizkuntza normalizatzeko planak idazten eta beren entiateetan inplementatzen parte hartu duten entitateei modulu hau aplikatuko zaie:

a.3.1 Hizkuntza normalizatzeko plan bat egin izana egiaztatzeagatik	800,00 euro

a.3.2. Hizkuntza normalizatzeko plana inplementatzearen ziurtagiria	400,00 euro

a.4 Berdintasunerako planetan prestatzea, haien proiektua idaztea eta plana bera inplementatzea.

Berdintasuneko prestakuntzan parte hartu duten, proiektua idatzi duten eta bere entitatean berdintasun plan bat gauzatzen ari diren entitateei modulu hau aplikatuko zaie:

a.4.1 Berdintasun plan bat egin izana egiaztatzeagatik	800,00 euro

a.4.2. Berdintasun plana inplementatzearen ziurtagiria.	400,00 euro

a.5 Egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskaliten ikastaroan parte hartu eta ikastaro hori egikaritzea.

Egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskaliten ikastaroan "Konpromiso diploma" eskuratu duten erakundeei, horren baliodun ziurtagiria baldin badaukate deialdi hau argitara ematen den egunean, honako modulu hau aplikatuko zaie:

Euskaliten ikastaroan "Kudeaketa aurreratuko diploma" eskuratzeagatik	1.200,00 euro

Modulu honen aplikaziotik kanpo geratzen dira kirol federazioak, kontzeptu horregatik beragatik beste dirulaguntza bat jaso izanagatik beste deialdi batean.

a.6. 2017-2018 kanpainarako izena emanda dauden "B kirol jarduera anitza" taldeentzako kirol jarduera anitzak (topaketak) antolatzea.

"B kirol jarduera anitza" taldeentzako kirol jarduera anitzak (topaketak) antolatu dituzten erakundeei, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Kirol Zerbitzuak baimendu baldin baditu, honako modulu hau aplikatuko zaie:

Antolatutako jarduera bakoitzeko	100,00 euro

a.7. "Eskola kirolean kirol legea sustatu eta bortizkeria prebenitzeko programan" parte hartzea.

"Eskola kirolean kirol legea sustatu eta bortizkeria prebenitzeko programa" izeneko parte hartze ibilbidearen barruko kirol eta kultur jardueran parte hartu duten erakundeei, honako modulu hau aplikatuko zaie:

"Eskola kirolean kirol legea sustatu eta bortizkeria prebenitzeko programan" parte hartzeagatik	600,00 euro

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Dirulaguntza hau jasotzeko, parte hartu duten zentroek gaitasuna lortuta eduki beharko dute, atal hauek zehatz-mehatz bete ondoren:

— Kiroltasun lema ageri duen pankarta ikusgai ipintzea asteburu oro.

— 3 prestakuntza lantegietara joatea.

— 3 lantegi horiek zentroan bertan ematea.

— Jardunbide egokien gymkanan parte hartzea.

Erakunde bakoitzarentzako guztirako dirulaguntza, a.2., a.3, a.4, a.5, a.6 eta a.7 idatz zatietako emaitzak batuta ateratzen den emaitza izango da.

Behin aurreko paragrafoan aipatzen den irizpide hori aplikatuta erakunde bakoitzari dagozkion zenbatekoak batuta laugarren oinarriko a) idatz zatian ezarritako guztirako zenbatekoa gainditzen bada, zenbateko hori banatu egingo da, erakunde bakoitzari dagokionaren heinean.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, oinarri honetako aurreko idatz zatietako bakoitzean ezarritakoaren arabera balioetsita, 150 eurotara heltzen ez diren eskaerak.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu. Balioespen batzorde horren burua Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Deialdian xedatutako irizpideekin bat etorriz, balorazio batzordeak txosten bat egingo du laugarren oinarriko atal bakoitzerako, non ebaluazioaren emaitza zehaztuko den.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpenak emango ditu deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola jo ahal izango dute erakunde eskatzaileek.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileri eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluak xedatutakoa betez. Ebazpen horrek jakinarazpen balioa izango du.

6. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Zazpigarren oinarriko idatz zati bakoitzari dagokion dirulaguntza, horri buruzko ebazpena onartu ondoren ordainduko da.

Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailek edo haiei atxikitako erakundeek ematen dituzten dirulaguntzekin, baldin eta bi erakundeek berariaz ematen badute baimena, elkar hartuta edo aldez aurretik jakinaren gainean egonik.

Hamaikagarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

II. eranskina

Titulazioen taula

MAILA	TITULAZIOAK
1	- Titulaziorik gabe.
2	- Kirol arloaz kanpoko lizentziatura/gradu eta diplomak. - Aisialdiko hezkuntza jardueretako begiralea. - Begiralea, 0 maila. - Eskola kiroleko begiralea.
3	- Pedagogia, psikologia eta gizarte hezkuntzako lizentziatura/gradua. - Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduaren 1. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dira. - Lehen hezkuntzako graduko 1., 2. edo 3. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dira. - Gizarte eta kultura animazioko II. LHa eta aisialdiko hezkuntza jardueretako zuzendaria. - Natura ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzeko erdi mailako gradua. - Gorputz eta kirol jardueren arloko profesionaltasun ziurtagiriak.
4	- Probintzia begirale edo entrenatzailea, I maila/graduko entrenatzailea, I. mailako kirol teknikariaren hasierako zikloko entrenatzailea. - Irakaslegoko diploma / Lehen hezkuntzako gradua. - Lehen hezkuntzako graduaren 4. ikasturtean matrikulaturik egotea (Gorputz hezkuntzako espezialitatea/aipamena). - Gorputz eta kirol ekintzen animazioko goi mailako gradua. - Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduaren 2. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dira.
5	- Eskualdeko entrenatzailea, II. maila/graduko entrenatzailea, Kirol teknikaria (II. maila). - Irakaslegoko diploma / Lehen hezkuntzako gradua (gorputz heziketako espezialitatea/aipamena). - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren 3. eta 4. ikasturteetan matrikulatuta egotea.
6	- Estatuko entrenatzailea, III maila/graduko entrenatzailea eta goi mailako kirol teknikaria. - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura/gradua.

Titulazio indizea ez da metakorra, eta punturik gehien dagokion titulazioa bakarrik balioetsiko da. Aurreko kanpainetan aurkeztutako tituluak ere balioetsiko dira.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.06.15 05:21:59 Z